



BBE PLASTICS

Zurriola Ikastola
Batxilergoa 2A
Enara Jaurergi eta Nora Alvarez
tel. 688 73 73 62

AURKIBIDEA


- Proiektuaren helburu nagusia.....2. orrialdea
- Proiektuaren deskribapena.....2. orrialdea
- Argazkiak eta bestelako baliabideak.....5. orrialdea

PROIEKTUAREN HELBURU NAGUSIA

Proiektu honek hainbat helburu izan arren, kontsideratu dezakegu bere helburu nagusia plastikoa berrerabiltzea dela. Izan ere, egin ditugun panpinak, jostailuak eta apaingarriak ahalik eta plastiko gehien berrerabiliz egin ditugu. Hots, esan dezakegu gure produkzioak %80an gutxigorabehera berrerabilitako plastikoez eta bestelako materialez eginak daudela. Era berean, honek automatikoki murrizketara eramaten gaitu, material berria erosi behar ez izatea edo erabili behar izatea eragiten duelako. Hobeto ulertzeko horrela ikus



daiteke egoera: etxean edo ikastolan bildutako plastikoa erabiltzen badugu, ez dugu erosi beharko plastiko gehiago edo plastikoa ez den material gehiago gure proiekturako; beraz, hauen erosketak ekiditeak sortuko litzatekeen material kopurua nahiko murriztu duela uste dugu.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua egiteko erabakia horrela hartu genuen: Gabonak baino lehenagoko asteetan erabaki izan behar genuen zer egin nahi genuen itsas hondakinen erronka honi aurre egiteko eta seguraski garai horretako zorientasuna eta motibazioa zela eta, gure proiektua gizartean ohikoak diren eta normalizatuta dauden panpin eta apaingarri motekin asoziatzea erabaki genuen. Hau da, elurpanpina eta oreina adibidez nahiko arruntak dira gabonetan, baina betiko moduan sortu ordez, ahalik eta plastiko baliabide gehien berrerabiliz sortzea erabaki genuen. Horrela, pentsatu genuen jendeak ikusi ahal izango zuela posible dela beste modu batera eginda, batez ere umeek gustuko dituzten objektu horiek birsortzea. Eta azkenean, nahi hori bete eta gure imaginazioa pixka bat libre utzi nahi genuelako erabaki genuen proiektu hau egitea; gure inguruko plastikoa murrizteko saiakera bat eginez.

Bestetik, egia da ez dugula inspirazio iturri zehatzik izan erronka hau gauzatzeko orduan. Hala ere, kontsideratu dezakegu apaingarriak eta jostailuak egiteko unean interneten aurkitutako hainbat argazkitan oinarritu garen bitartean, panpinak egiteko etxean genituen antzeko eskulanetaz eta umeen ilusio espiritu horretaz baliatu garela.


Iraupenari dagokionez, dena egiteko hilabete oso bat behar izan dugu bataz bestez. Ideia Abendu erdialdean pentsatu arren, dena Urtarrilaren 9tik aurrera garatzen eta finkatzen hasi ginen; eta azkeneko klasera arte behar izan dugu dena prest izateko eta antolatzeke. Gainera, hasieran pentsatu genituen zenbait gauza ez

egitea erabaki dugu azkenean; denbora faltagatik nagusiki eta baita konturatu garelako agian ideia batzuk alferrikako lana zirela, ez zirela baliagarriak ikasteko edota beste hezkuntza helburuetarako.

Gure proiektuaren gutxigorabeherako garapena honako hau izan da: Lehenik eta behin, proiektuarentzako ideia posibleak bilatu genituen eta bakoitza helburu zehatz batekin pentsatu genuen. Ondoren, bion artean gustukoena genuena eta egingarriena nahiz interesgarriena iruditu zitzaiguna aukeratu genuen. Horren ostean, oportunitateak bueltako lehen astean, dokumentazio eta antolaketa lana egiten egon ginela esan dezakegu. Aste horretan materiala nola bildu pentsatzen egon ginen eta sare sozialetako kontua sortu genuen. Bertan, jarraitzaileak lortzen saiatu gara ahalik eta pertsona gehienetara iritsi ahal izateko gure erronkarekin.



Azkenean, materiala irakasleei eta ikastolako bestelako kideei, jangelako langileak barne, eskatuz lortu dugu. Era berean, baliabide hauetatik lortu ezin genuena etxean bilatu dugu; esaterako, erabiltzen ez genituen botoiak, plastikozko begiak etab. Behin gure burua epe batzuen barruan plangintzatuta eta materiala bilduta, apaingarriak eta panpinak egiten hasi ginen. Elurpanpina eta hartz polarra egiteko plastiko zatiei ahalik eta itxura biribilena eman eta poliespanecko bolak erabili ditugu buru gisa. Ildo beretik, plastikozko ileko gomak, begiak, artilezko bolatxoak, soberan aurkitutako kartulina zatiak, etxetik aurkitutako zintak... erabili ditugu hankak, sudurra, begiak, bufandak eta bestelako atalak egiteko. Bestetik, oreinarentzat, desodorante pote batez baliatu gara gorputza egiteko. Geroago, tenpera marroia eta plastikozko lamina transparente bat erabili ditugu larruzala izango litzatekela osatzeko. Azkenik, adarrak eta bestelako atalak lehen aipatutako materialak eta goma espuma nahiz txintxarria erabiliz sortu ditugu; eta dena silikona erabiliz itsatsi dugu. Bestetik, jostailu eta apaingarriei dagokionez, prozesu ezberdinak egon dira. Esaterako, lore formako apaingarriak egiteko, jogur pote batean lore formak marraztu eta hauek moztu genituen. Era berean, gantxoak eta brotxeak sortzeko etxean aurkitutako hainbat gantxo eta klip baliatu ditugu. Hau bukatu ondoren, ikastolako jangelan bildutako plastikoak jaso eta garbitu genuen jostailuak egin ahal izateko. Hauek, bi kendama ziren: jangelatik emandako active botilak moztu eta itsatsi genituen. Jarraian, amaitu zitzaigun tipexaren plastikozko soka erabili genuen poliespanecko pilota bati lotu eta jostailuarekin amaitzeko.




Orokorrean gure artean hitz egin ostean, uste dugu proiektuaren zatirik gogorrena hasieran pentsatu genuen guztia ezin egin ahal izatea izan dela. Izan ere, baliteke zenbait ideia ez hain on eduki izana eta hori ez betetzea ez zaigu axola, baina polita iruditzen zitzaigun collage bat egin ahal izatea soberan genituen material edota plastiko zatiekin. Hori dela eta, pena pixka bat sentitu dugu denbora gehiago ez izanagatik horrelako ideiak aurrera eramateko. Gainera, egia da ez dela erraza izan zenbait material eskuratzea edota bilatzea eta baliteke, momentu batez izan baldin bada ere, ez jakintasun horrek zertxobait larritu izana; hau da, zailtasunen aurrean uneko beldur edo ezinegon puntu bat sentitu izana.

Hala ere oso une politak ere bizi izan ditugu esperientzia berri honek iraun duen bitartean. Pentsatzen dugu baliagarria izan dela eguneroko errutina monotono hontatik ateratzeko eta 2.Batxilergoan egon eta lan serioa egiten jarraitu behar izan arren, gure imaginazioa libre utzi ahal izateko. Azken finean, estres edo urduritasun handiko egoeren aurrean egon ohi gara askotan eta iruditu zaigu ondo etorri zaigula proiektu honek nolabait eman digun lasaitasuna eta pakea. Halaber, hausnarketa eta ikaskuntzarako baliagarria iruditu zaigu, plastikoak sortzen dituen arazo eta ondorio larrien inguruan informatzea eta egoeraren larritasunaz lehen baino gehiago jabetzea lortu dugulako.

Azken aipamen horretan ardaztuz, ikasi dugun gauzarik garrantzitsuena honekin guztiarekin da plastikoa ez dela desagertzen, eta guk ezer gutxi egiten dugula arazoa konpontzea lortzen ez badugu behintzat egoera hobetzeko. Era berean, pentsarazi egin gaitu gure eguneroko ohituretan eta sakon hausnartu ondoren, jabetu gara askoz gehiago egin dezakegula arazo honi aurre egiteko. Ateratako ondorioa izan da, batez ere, utzikeriagatik edo ez jakintasunagatik egiten ditugula askotan akatsak, eta guk geuk plastikoaren erabilera murriztea, birziklatzea eta abarreko erronka honi aurre egitea lortzen ez badugu, ezin dugula espero beste batzuk guregatik lan hori egitea. Dena den, hori da gizartean orokorrean gertatzen dena, batek ez duela egiten, ondokoak ezta ere eta horrela egoera okerrera doa soilik.

Sare sozialetan 17 bat jarraitzaile ditugu eta, beraz, esan dezakegu 17 pertsona hoietara eta Zurriola ikastolako kide diren guztiengana iritsi garela; haiek izan dutela gure proiektuaren berri. Azken finean, klase orduetan ez bada ere, atari garaietan edota bestelako klase orduetan itsas hondakinen erronkaren berri izan dute irakasleek, ikasketa buruek, jangelariek eta abarrek guk kontatutako aurrerapen eta

bizipenekin. Beraiek dira, hein batean behintzat, gure proiektua ere aurrera eramaten lagundu digutenak eta, horrekin batera, guk haiei lagundu diegu modu batean edo bestean beraien etxeko eta inguruko egoerai buruzko nolabaiteko hausnarketa edota gogoeta egiten. Hori dela eta, baliteke aldaketa baten hasiera piztu izana gure eta bestelako klasekideen proiektuekin. Bukatzeko, instagrameko kontua erabiliz eta aurrez aurre hitz eginaz zabaldu dugu nagusiki gure proiektua.



JARRAITU

GAITZAZUE

GURE

SARE

SOZIALETAN!

https://instagram.com/bbe_plastics?igshid=ZDdkNTZiNTM=